

# t tipi t tapa

2004ko urriaren 7a • XXIV. urtea

383



## Laxoa Elkarteak ospakizunetan

28

Azken 25 urteotako txapeldunak eta lehendabiziko zuzendaritza batzordea omendu zituen Laxoa Elkarteak, Tiburtzio Arraztoak liburua aurkeztu zuen bezperan.



## Joaldunen Eguna egin da Iturenen

15

Azken hogei urteotako ohiturari eutsiz, Joaldunen Eguna ospatu zuten Iturenen irailaren 18an. Goizean, hamasei joaldun ibili ziren baserriz baserri.



03

IKASI BIRZIKLATZEN, zure esku dago

# Neurri handiko trasteak ez dira karrikara ateri behar



# alkain-ek, beti ere zerbait gehiago



Alkain zeramikak eta bainuak saltegian ahalegin guztiak egiten ditugu gure bezeroak ondo artatzen: kalitatea, barietatea, diseinua, prezio on bat ...**eta zerbait gehiago.**

Horregatik, **zuk komun-ontziak eta iturriak** erosten dituzunean, **kenketa automatikoko txartel bat** emango dizugu altzarietan eta

bainuko akzesorioetan deskontatzeko. Gainera, txartelak zenbaki bat darama eta horrek aukera emango dizu **Kanarietako bidaiaren** zozketan parte hartzeko.

Zatoz eta zeuk egiaztatu: abantaila kontuetan Alkain-en **zerbait gehiago aurkituko duzu beti.**

 **alkain**  
zeramikak eta bainuak

C/ Amutalde, 21 • Hondarribia • Tel.: 943 64 52 54  
[www.alkain.com](http://www.alkain.com)

## MUEBLES AMETS



**larunbat  
arratsaldetan  
irekia**

4000 m<sup>2</sup> erakusketa

**Sarrera  
BERAtik da**

*Sastrin karrika,  
3.2 - 3.4 Alkaiaga*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*

*Fax. 948 631 443*

BISITATU GURE  
WEB ORRIA

[www.mueblesamets.com](http://www.mueblesamets.com)



**Zatoz  
eta  
ikus gure  
aukera  
zabala**

- **Sukaldeak**
- **Egongelak**
- **Logelak**
- **Bainugelak**



Zabor eta hondakinen birziklatze prozesuan lehendik egin diren esfortzuak hobetzeko, informazio eta sentibilizazio kanpaina jarri dute abian Bortziriak, Malerreka eta Baztanen. «Jondearen kolaborazioa indartzea» da udal agintarien helburua, eta horren ondorioz, «urtetik urtera birziklatzen den hondakinen kopurua handitzea» espero dute. Zentzu horretan, «argibide zehatzak» emanen dizkiote jendeari, hiri-hondakin bakoitza zein edukiontzira botu behar den zehaztuz, eta zenbait kasutan, horiek biltzeko zer egin behar den ode kasu bakoitzean zein telefonora deitu behar den zehaztuz. Xehetasunak eskura izateko, folietoak banatu dira etxez-etxe eta zabor ontzietan argibide-pegatinak jarriko dituzte. Aldi berean, publizitate iragarkien bitartez jendeari laguntza eskatuko zaio.



Jose Mari Apezetxea



Koteto Ezkurra



Estitxu Fernandez



Mari Carmen Irungarai



Mariado Iturralde



Inaxio Errandonea

Bortziriak, Malerreka eta Baztango pertsona ezagunek lagundu dute kanpaina

“IKASI BIRZIKLATZEN, ZURE ESKU DAGO”

## Zaborren birziklatzea ez trabatzeko, ongi bereiztea beharrezkoa da

J. IRIGOIEN

Datuak erakusten dutenez, zenbat eta gizarte kontsumistagoa, orduan eta hondakin gehiago produtzten da. Fenomeno hau orokorra da mundu osoan, eta horregatik, hondakin horien guztien kudeaketak buruhauste dezente sortzen die gai honetaz arduratu behar duten mankomunitate eta udal agintariari. Zer egin urtetik urtera gehiago diren zaborre-

kin? Nola bildu? Norat eraman? Eta bildu ondotik, zer egin horiekin?

Gauzak bere onera ekartzeko agintarien ardura ez ezik, jendearen laguntza ere behar-beharrezkoa dela erreparatuta, informazio eta sentibilizazio kanpainen berebiziko garrantzia hartzen dute. Eta horixe da Bortziriak, Malerreka eta Baztanen, egiten ari direna. Pertsona ospetsu eta ezagunen laguntzarekin, atal desberdinak izanen dituen kanpaina di-

seinatu dute, etxetik hasten den birziklatze prozesuak ahalik eta emaltzarik hobereana izan dezan. Ez baita gauza bera hondakin bakoitza dagokion edukiontzian botatzea, gero, birziklatze-prozesuak bere bidea segi dezan, edo zaborrak denak nahasiak biltzea edukiontzietara, eta horren ondorioz, birziklatze-prozesua trabatu eta balio gabetua gelditzea. Sistemak funtzionatzeko jendearen partehartzea eskatzen du, bistan da.





Kanpainaren nondik-norakoak agertu zituzten mankomunitate eta udal ordezkariak prentsaurrekoan. Argazkian Ramon Olaziregi, Miguel Mari Irigolen, Marisol Taberna, Andres Etxenike eta Jose Ramon Taberna.

#### ORAINDIK BADA HOBETZERIK

«Momentu honetan birziklatzen den kopurua ez da ttikia, baina Europako Batasunean eskatzen dena hurbiltzeko oraindik bada non hobetu». Horixe diote kanpaina berri hau koordinatzen duten udal agintariak.

Balantzea eginez gero, beira bilketak ematen ditu emaitzarik hoberenak, Iruñerriko eta Txingudiko Mankomunitateek dituzten kopuruak gaitetik. Izan ere, Bortziriak, Malerreka eta Baztanen 30 kilo beira birziklatzen da biztanle eta urteko, Europan banaz bertze egiten den kopuru beretsua.

Papera eta kartoiaren kasuan ere, dezente kopurua biltzen da, 32 kilo/biztanle/urteko, baina Europako datuak hobeak dira nabarmen (50 kilo).

Daturik eskaxenak enbaseen bilketak ematen ditu. Europan 26 kilo/biztanle/urteko biltzen dira, eremu honetan, ordea, 7 kilo baino ez.

#### ZERBITZU BERRI BAT URTE HASIERATIK AITZINERA

Lehendik dauden zazpi bilketa-selektiboen gain, urte hasieran zortzigarren bat jarriko da abian: etxeko hondakin berezien bilketa (pinturak, esprai enbaseak, pestizidak, ibilgailuen bateriak...).

Bilketarako, sukaldako olioekin erabiltzen den sistema aplikatuko da kasu honetan ere. Hau da, biltzaileak egun jakin batzuetan pasatuko dira herri bakoitzetik, eta aldeztu aurretik jakinaraziko da tokia eta ordutegia. Dena den, lehiaketa-prozesua bukatu



PEGATINAK: edukiontzi bakoitzak pegatina bat izanen du, eta hor agertuko da zer botatzen ahal den eta zer ez.

ondotik zehaztuko dira bilketa sistemen azken xehetasunak.

Beraz, hauek dira Bortziriak, Malerreka eta Baztanen eginen diren zortzi bilketa desberdinak: beira, pilak, enbaseak, papera, neuri handiko trasteak, siloetako plastikoa, sukaldako olio eta etxeko hondakin bereziak.

#### FOILETOAK, EGUTEGIAK ETA PEGATINAK ARGIBIDEEKIN

Birziklatze-kalitatea hobetzearan alde, ahalegin handia egin nahi dute udal tekniko eta agintariak. Horretarako, 12.000 foileto banatu dira Bortziriak, Malerreka eta Baztanen, etxe guztietan bana izateko adina. Ber-

talde, edukiontzi bakoitzari pegatina bana jarriko zaio, barrena zer botatzen ahal den eta zer ez zerrendatuz. Egutegiak ere banatuko dira etxez-etxe, eta informazio gehiagorekin batera hor agertuko dira markatuak zein egunetan bilduko diren herri bakoitzean sukaldako olio eta etxeko hondakin bereziak.

Azkenik, jendearen arreta eta laguntza estimulatzeko, publizitate kanpaina eginen da eskualdeko komunikabideetan, Iragarki horietan, Bortziriak, Malerreka eta Baztango pertsona ezagunen irudi eta ahotsetan entzunen dira kontuan hartu beharreko aholkuak.



## 2003. URTEAN BILDUTAKO HONDAKINEN KOPURUAK

### KONTUAN HARTU

#### NEURRI HANDIKO TRASTEAK

- ❶ Ez ateri trasteak karrikara. Deitu Mankomunitatera eta ebatera joanen dira biltzera.
- ❷ Deitzerakoan, eramatea nahi den traste guzti guztien berri eman.
- ❸ Bakarrik etxeetako trasteak biltzen dira. Baliteke geroago enpresetako ere biltzea, baina momentuz ez.

#### PAPERA ETA KARTOIAK

- ❶ Paper edukiontzien barnean sartu behar dira beti. Ez utzi kanpoan.
- ❷ Kartoiak eta kaxak hautsi, plegatu eta barnean sartu.

#### ENBASEAK

Plastiko, brik eta metalezko enbaseak soilik.

- ❶ Enbaseak garbiak eta hutsak sartu.
- ❷ Hondakin organikorik ez sartu.
- ❸ Enbase sueltoak bota, boltsatik ateriak. Gero zabor boltsa hutsa ere bai.

#### SUKALDEKO OLIOA

Baztanen eta Bortzirietan biltzen da etxeko olio. Egun jakinetan pasatzen dira herri bakoitzetik.

- ❶ Sukaldeko olio zaharra enbase batean sartu.
- ❷ Autoen olio zaharra ez da sartu behar.

#### SILOETAKO PLASTIKOIA

- ❶ Ez bota plastikoa edukiontzietara. Deitu Mankomunitatera eta etxera joanen dira biltzera.

#### PILAK

- ❶ Pila-edukiontzian bota edo dendara eraman. Ahal denean, erosi pila ekologikoak.

#### PAPERA ETA KARTOIA 2003

Kg / biztanleko / urtean



#### ENBASEAK 2003

Kg / biztanleko / urtean



#### BEIRA 2003

Kg / biztanleko / urtean



#### SUKALDEKO OLIOA 2003

Hilabetean behin, herriz herri biltzen da



Bildutako olioarekin biodiesela egiten da

	Jateke Tabernak	Etxe Partikularrak	Pertsona kopurua
Baztan	13.875 Kg	2.363 Kg	942
Bertizarana	1.017 Kg	0	0
Bortziriak	38.640 Kg	1.688 Kg	611
Malerreka	7.492 Kg	0	0

#### NEURRI HANDIKO TRASTEAK 2003

Mankomunitate edo udalera deitu eta ebatera joaten dira biltzera



	Bildutakoa	Baztertua	Berreskuratua	%
Baztan	73.180	11.080	62.100	85%
Bortziriak	140.480	18.854	121.626	86,5%
Malerreka	48.770	6.546	42.224	86,5%



ARGITARATZALEA (Editeur): ttipi-ttapa fundazioa. PRESIDENTEA (Président): Peio Apeztegi. KUDEATZALEA (Gérant): Joxemari Irigoin. ZUZENDARIA (Directeur de publication): Aitor Arotzeta. PUBLIZITATEA (Publicité): Kulturkan. SLU ADMINISTRAZIOA (Administration): Amaia Gola. BERRIEMALEAK (Collaborateurs): Mikel Ilarregi, Esteban Arotzeta, Juana Mari Salazar, Kontzi Klaber, Peio Zestau, Iban Itasi, Franck Dolosor, Margari Etxenika, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Saski, Angela, Itintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Otagarai, Nerea Mixaltorena, Aitor Arotzeta, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakei Gofi, Rakei Arago, Iñaki Kontsumitzaileen Elkarte.

INPRIMATZEA (Imprimeur): Gerfu. ERAKUNDE LAGUNTZALEAK (Avec la participation de): Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperen udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Mainerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetzta sarak:**

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Mainerreka eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Esker onaz Goizueta eta Aranori

Urte asko ditut zuen artean. Arunt oroitzen onatzen daramat pertsonalki eta profesionalki zuekin izan dudana harremanengatik, sekula guzian iraungo didan oroitzapena. Eskerrak, eman didaten mailtasun eta konfidantza-rengatik zaharrei; haureta gaztekoiei; suhiltzaile eta anbulantziaren bolondres taldeari, bi udalei, Gizarte Zerbitzuko langileei, lan-kide guzietan eta kafea hartzerantz elkartzen ginen koadriari. Eta eskerrak oso bereziki bi pertsonari, berekin izan dudana adiskidetasunaz gain, batek lanean, Joxe Javierrek, eta besteak familia hazitzen, Pili, eman didaten laguntza ikaragarriarengatik.

Zaindu zaitezte eta orain arte bezain jatorrak izaten segiti!

**Maribel LATASA**  
Goizueta eta Aranoko mediku ohia

### Lurraren Eguna 04

Lurraren eguna datorren Urriaren 24an ospatuko dela adierazi nahi dizuegu.

Bezperan Urriaren 23an, 20:00etan Oin Arin (Lazkao) dantza taldearen saioa kultur Etxean eta gauerdian Kontzertua antolatuko da Alzaten.

Lurraren Eguna 60 artisau gortari ariko dira Alzateko Karrikan, egurra, buztina, lamua, beira, sendabelarrak, elikagaiak eta bertzelako eskulanak erakusten, lantzen eta saltzen.

Bortziritako produktak (barazkiak, sagardoak, gasna, loreak, kauluzak, ezlia e.a.) goize-

ko 10etatik aintzinerara erakusgai eta salgai egonen dira Alzaten eta Ricardo Baroja Eskolako atarian. Argazki erakusketa Labiaga ikastolako aretoan jarriko da. (Berako Bitxikeriak)

Gaztak eta Sagardo botilak, Urriaren 24an goizeko 10ak baino lehen hartuko ditugu, ohi denez Ricardo Baroja Eskolan.

XVII GAZTA LEHIKETAREN Sariak hauek izanen dira: 1. Saria: 150 Euro eta Oroigarria. 2. SARIA: 90 euro eta. 3. SARIA: 50 euro.

VI SAGARDO LEHIKETAREN SARIAK hauek dira: 1. Saria: 100 euro eta oroigarria. 2. saria: 50 euro. Sari banaketa 17:00etan, Alzateko Plazan egingen da.

Hementxe duzue 2004ko XVIII Lurraren Egunerako prestatutako dugun egitaraua: 10:00etan Lizuniagako Igoera (Lasterka). 10:30etan: Esku-langileen azoka eta erakusketa. Barazki erakusketa. Bortziritako produktuen salmenta. Talak eta gasna egun guzian zehar. Eskoletako, Nafarroa Oinezko e.a. postuak. 11:00etan: Txalaparta eta Bera trikitrixa eskolakoak. 12:00etan: Berako Banda eta Txistulariak, Musika eskolako akordiolariak bitartean Eskolan Sagardo dastaketa eta Lehiaketa eta Gasna Lehiaketa. 16:00etan: Gorritiren Animaliak. 17:30etan: Bertsolariak: Amaia Agirre, Irazu eta Julen Zelaieta. 18:00etan Sari banaketak eta enkantea Ilunabarrean Dantzaldia. Irats. Ekitaldiak goizeko 10:30tan hasiko dira, eguraldi ederra egiten bada Alzaten eta euria bada Polikiroldetan eta Alzateko Frontolan.

Lurraren Eguna

### Elizondo-Aldude errepidea erokerial!

1- Elizondo eta Aldude artean errepide berria egin nahi dute. Baina zergatik? Zertarako? Orain artio aditu ahal izan diren gauzak: harreman historikoen bulkatzea, euskararen indartzea, ekonomi-garapena... erretorika bertzerik ez dira. Izpegiko errepideari begiratuz gero, aski garbi ikusten ahal da, errepide horrek ez duela halakorik deus ekarri.

2- Gaur egun ez da bide bakar bat ere Elizondo eta Aldude lotzen dituen. Baina bide baten hobetzea eta moldatzeari buruz solasean aridira aldero. Alta, nahitaz errepide zati berri bat ireki beharko dute. Zergatik halako jokamodu bihurtia? Hori ez ote da desinformatzioa? Gauza bat onartu bertze bat egiteko?

3- Lehendabiziko errepide proiektua Baileiko lepotik, Itxiko lepoan baina Belaunderat zioan. Zinez beldurgarria. Bigarren egitasmoa berriz, Baileitik Urballorat, eta ondok Zagua hegaletik, Hargibel inguratuz Iñarzierat. Hau ere ikaragarria. Bortz inporta zaien nondik egin eta zer xehatzen den. Horrelako proiektuak pentsatzeko gauza izan badira, zer sinesgarritasun dute hirugarren proiektu bati buruz solasteko? Orain artio astokeri eta basakeriak ikusita ez dute inongo zilegitasunik proiektu honen segitzeko!

4- Errepide eta autoen araberako errepide espazioan bizi gara, saturazioa iritsi dena eta ondorio larriak ekartzen ari dena. Ez gaude XX. mende hasieran eta dagoeneko badakigu errepide bidez auto eta jendeei irekitako tokiek zer ondorio jasaten duten. Prest gaude logika horrekin segitzera?

5- Hirigintza basati eta ero honi esker, Elizondo eta Baztan guti batzuen interesen alde hondatzen ari direla ikusten ari gara. Orain Oronoz-Mugaireko San Martingo etxebizitzako proiektuekin ari dira. Gainera edozein erokeri egiteko bidea ematen duen Udal Plana eta zementuarekin zer ikusita duen edozein gauza baimentzeko prest dagoen udala. Batek Baztango behetiko aldean etxe eta zementuan bihurtu, eta bertetik mendian baina errepide berriak egin. Progresoa? Aitzinamendua?

6- Errepide berri hau egiteko zenbat ordaindu beharko du Baztango udalak? Zergatik isiltzen dute Europako eta Nafarroako Gobernuo dirulaguntzetan gain, Baztango udalak ere soso kopuru bat paratu beharko duela? Eta gero negarrez, sosik ez dela basemietara behar bezalako bideak egiteko, kultur etxea asteberrietan irekitzeko edo bertze hameka gauzetarako. Baina errepide berria egiteko bai!

Belaun Aldea Bizirik.



## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



D. Navarra 2004-09-20

«Hagitz kontent nago. Izugaritzko arrakasta da Onddoaren Besta egunean hamabi kofradia Elgorriagara hurbiltzea. Egia errateko urtero kofradia aunitz etortzen dira eta badira etorri nahi zutenak eta ezin izan dutenak, leku falta dela eta ezin izan baititugu guziak gonbidatu. Pena da, baina herria txikia da eta ondo lehiaketan pentsatuz, ez zen guzientzat tokirik izanen».

Jose Migel  
GALARREGI  
Elgorriagako alkatea eta  
Onddoen Kofradiako  
presidentea  
D. Navarra 2004-09-20

«Itoitz nafar guzientzat behar-beharrezkoa den obra moduan aurkeztu izan digute, nahiz eta interes zehatz batzuei erantzuten dien; hori da gezurrik handiena. Askotan entzun dugu Miguel Sanz Nafarroako presidentea Itoitz Nafarroako modemitatearen eta garapenarekin lotzen; baina porlanezko halako azpiegitura bat ezin da gaur egun modemitatearekin lotu. Gezur handi hori eusteko hamaika gezur biki sortu behar izan dituzte. Adibidez, Itoitz dela ingurumenarekin errespetu gehien duen obra, edota urtegiakoa obra segurua dela».

Edume ELIZONDO  
Berako kazetaria  
Berria 2004-09-23

## • 11 GALDERA LABUR •

2002an Eskolarteko txapelduna... Nafarroako txapelketa nagusia buru gainean noizko?

Galderarik errexena, finalera noizko? izanen litzateke. Noizbait lortzen bada ongi. Momentuz zaila ikusten dut. Lehen aldiz parte hartu duzu aurtan Nafarroako bertsolari txapelketa. Nola ikusi duzu zure burua? Nahiko lasai aritu nintzen, baina badut aunitz ikasteko. Finalerdira pasatea helburua zen eta horrekin kontent nago, baina ikasi beharra dut.

Bertsotan, tabiatu gaian edo mahainguruan?

Dudik gabe mahai inguruan. Nere burua hobe ikusten dut eta bertsotan hobeki aritzen naiz bertso afarian eta hamaikako

koa edo ikasitakoa?

Bertsolariak bietarik izan behar du. Berez sortutako pixket eta ikasitakoa ere bai. Bietatik aunitz duena bertsolari ona izanen da.

Bertsolarako lagunik gogokoena? Giro ona da bertsotan aritzeko behar dena. Laguna ona edo konfidantzazkoa baldin bada hobe.

Bertsolari perfektua?

Ez da bertsolari perfekturik izanen, baina nere ustez perfektua izateko txapelketa ongi aritzeaz gain umorea izan behar du.

Gartzaingo bestak edo Baztandarrren Biltzarra?

Biek, gartzaindarra naiz eta baztandarra naiz eta bietan ederki pasatzen dut. Riak beharrezkoak dira neretari



Jon ELIZETXE  
Gartzaingo bertsolaria

ri autobusa edo zure au-

ean gan-torri autobusik izaten iz. nere autoa, lagunena autoa sika aita eta amaren autoa.

ri: Gartzainek eta guardia zindari bera... Ongi zaindua on zara?

tez ere guardia zibilak Garri guti etortzen direlako. Nahi zelebratu hemendik urun zedezatela!

bestarako edo usotarako behiago dute gartzaindarrek? Egoi gehiago, dudik gabe.

er faltan eta zer soberan Gartzaingo bestek?

anpotarjendea somatzen dut. Elizondoren edo Bordabekoren gertelako. Soberan ez da deus baina lagunarteko giro ona iza-

## «USOA»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat  
pertsunik egokiak  
Tfno: 948635214



ETXALAR



## SOULE

Hileta artea

Tel: 948 453444 • 629 659583

ARIZKUN



## Javier Manterola

TEKNIKO

INSTALATZAILEA

iragortza • gasa • kolektorea

Tfno: 629 44 96 02 • BERA

## ZUBIONDO JATETXEA



Alanta karrika

BERA NAFARROA

TLF 948 625 472

sagardotegia jatetxea sagardotegia

## Alberto RETEGI

abokatua

Alzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763



## LANA

# Excel eta Internet ikastaroak antolatu ditu Cedernak Alkaiagan

Doneztebeko Enplegun Bulegoan 478 langabetu zeuden abuztuan

## ttipi-ttapa

Cedema-Garalur ek, IFES eta UGTekin batera, hainbat ikastaro, doakoak, antolatu ditu besteren konturako langile aktiboek edo Nafarroan dauden enprestan azken urte honetan enplegua galdu duten langileei eta Nafarroan lan egiten duten edo azken urte honetan egin dutenei zuzenduta. Ikastaroak Cedernak Alkaiagako industrialdean daukan Zentroan eskainiko dira eta INAF, Nafarroa Enplegu Zerbitzua eta Europako Fondo Sozialak finantzatuak da.

Urriaren 13tik azararen 25era Excel ikastaroa emanen da astelehenerdik ortzegunera. Ordutegia 16:00etatik 18:00etara eta denera 50 ordu.

Urriaren 13tik azararen 17ra Internet ikastaroa emanen da astelehenerdik ortzegunera, 18:00etatik 20:00etara. Denera 40 orduko ikastaroa da eta dagoene-



197 gizaseme eta 281 emakume lanik gabe zeuden eskualdean abuztuan.

koz, izen emateko azkeneko plazak bakarrik gelditzen dira ikastaro honetan. Taldeen guttieneko kopurua 15 laguneko da. Informazio gehiagorako edo izen emateko Cedemara jo behar da, 948 625122 telefonora edo 948 625132 fax zenbakira.

#### ABUZTUAN 478 LANGABETU INEMEN

Doneztebeko Enplegu Bulegoko datuen ar-

bera, 478 langabetu zeuden abuztu hondarrean Baztan, Malerreka, Bidasoa eta Leizaldean, azken urteotako kopururik baxuena. Uztailean langabetu kopurua zertxobait igo baldin bazen ere, abuztuan berriz ere beheiti egin du. 197 gizaseme eta 281 emakume zeuden lanik gabe abuztuaren 31n, urtarrilean baino %23 langabetu guttiago. Gaur eguneko lan-

gabetu kopurua 1999. urtetik laugarren baxuena da. 2000. urteko ekainean, uztailean eta abuztuan bakarrik izan ziren langabetu guttiago, 471, 476 eta 475 hain xuxen. Aurten, aipatu bezala 620 pertsona zeuden lanik gabe urtarrilean, 589 otsailean, 569 martxoan, 521 apirilean, 505 maiatzetan, 488 ekainean, 494 uztailean eta 478 abuztuan.

## OSASUNA

# Gripearen aurkako txertoa azararen 30a bitarte

## ttipi-ttapa

2004-2005 denboraldiko gripearen aurkako txerto kanpaina azararen 30a arte zabalik izanen da. Osasun zentru bakoitzak txertatzeko egunak bereziko ditu, eskariaren arabera.

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentutik 65 urtetik goitikoak, gaixotasun kronikoak duten eriak eta aspirinarekin tratamendu luzea duten 6 hilabetetik 18 urte arteko haur eta nerabeak txertatzea aholkatu dute. Arriku handia duten eriak zaintzen dituzten osasun langileak txertatzea ere komeni da.

2003 urtean 21.165 gripe kasu eman ziren Nafarroan, mila bizilaguneko 36,3 kasu. Aitzineko urteetan baino indar guttiago izan zuen iaz gripeak eta nahiko abudo hasi zen, azararen. Bertze urteetan urtarrila eta otsailean izaten du indarrik handiena eritasunak.



## Harategia

Eztegara 3  
Tfnoa: 948 630088  
BERA

**bortzirUDI**  
BERA  
KARTELAK  
KAMISETAK  
BISERAK  
TRIKEROKAK  
NAHI DUZUN KOPURU, NEURRI eta DISEINU  
Eztegara 26 behea Tel.- Faxa: 948 63 15 21

**PINTURAS LEGUIA s.l.**  
Rafa  
600 819 640  
Eztegara 26, 2.C - BERA

**ZJ**  
**Zalain**  
jatebrea  
Hostala  
14 logela,  
bainu eta TBrekin  
Eztegara 26, 2.C - BERA - Nafarroa



**BERA**

## Guraso Eskola sortu du Udaleko Gizarte Gaietarako Batzordeak

Joseba Irazoki musikariak «Irri eta solas» diska aurkeztu du

**Amaia eta Ainhoa**

Udaleko Gizarte Gaietarako Batzordeak Guraso Eskola sortu du eta honen aurkezpen-prentsaurrekoa irailaren 27an egin zen. Prentsaurrekoa Herriko Etxeko Areto Nagusian izan zen Jon Abril alkateordea eta Marisol Taberna eta Milagros Irazokiren eskutik. Guraso Eskola Gizarte Gaietarako Batzordearen bertzetan ildo bat da, bolondresak, etorkinak eta gazteria eta aisialdia bezala.

Batzorde hau, gaur egungo gizartearen gero eta zabalduagoa dagoen kezka batek bultzatuta hasi zen lanean: gizartearen etengabe gertatzen diren aldaketek eragin zuzena dute familiengan eta zenbaitetan gurasoengan nola-baiteko desorientazioa eragiten du, zalantzak eta desadostasunak. Kezka hau ikusita, honi aurre egiteko, urtarilaz geroztik ikastetxe guztietako ordezkariekin bilduz aritu dira Batzordean, ikasturte honetan Guraso Eskola abian paratu ahal izateko. Guraso Eskola ez da hitzaldi sorta bat, eskola-tailer modura planteatutako zerbait baizik, non gurasoek zuzenean parte hartuko duten gidari batekin. Hasieran, urriaren eta azaroaren, Iruñeako Bidari Taldeko Blas Campos pedagogoa izanen da gidari. Ildo nagusi batzuk proposatuko dira eskola-tailerrean baina parte hartzaileen arabera, bertzeko puntu batzuk ere jorratzeko aukera izanen da. Froga epe gisa, urria-



ARGAZKIA, JOSEBA IRAZOKI

### X. Dantzari Tiki Eguna

Arrakasta handiz eta eguraldi ederraren laguntzarekin ospatu zen irailaren 28an 10. Dantzari Tiki Eguna. Gure Txokoa Elkarteak Kultur Batzordearen laguntzarekin antolatutako ekitaldian, Gure Txokoa dantza taldeaz gain, Lesakako Tantarumairu Folklore Taldea, Legazpiko dantza-taldea eta Pasai Antxoko dantzariak etorri ziren.

ren 18 eta 25ean eta azaroaren 8, 15, 22 eta 29an egingen dira saioak. Matrikula 30 eurokoa izanen da eta izena emateko 012ra deitu behar da. Bertzalde, irailaren 28an, arratsaldean, Guraso Eskolako atari gisa hitzaldi bat eman zuen Blas Campos Kultur Etxean eta bertan "Familia giroan hezitzea gaur" gaia jorratu zuen.

ren 18 eta 25ean eta azaroaren 8, 15, 22 eta 29an egingen dira saioak. Matrikula 30 eurokoa izanen da eta izena emateko 012ra deitu behar da. Bertzalde, irailaren 28an, arratsaldean, Guraso Eskolako atari gisa hitzaldi bat eman zuen Blas Campos Kultur Etxean eta bertan "Familia giroan hezitzea gaur" gaia jorratu zuen.

**FLASH**

**Ikastaroak**

Kultur Batzordeak hila-bete honetarako ikastaro morderoa antolatu du. Dagoeneko batzuk hasi dira: egur tailarena, Aitzari konponketarena, antzerdi tailerra, eta ipuin tailerrarena. Hala ere badago zeramika ikastaro bat egiteko aukera oraindik ere. Urriaren 18tik 30era arte luzatuko da, astelehentik larunbatera 18:00etatik 20:00etara.

**Irri eta solas**

Joseba Irazoki gazte beratarrak, denbora luzean lanean ibili ondoren, bakarkako diska berri bat kaleratu du. "Irri eta solas" izenarekin baitaiatu du diska eta oraingoan folk doinuekin dator, banjoa eta guzi. Ilibete, Zorrotzak, Bizio bat eta Irri eta solas dira bertzeak bertze aditzen ahal diren abestien izenak eta hauen letrak Mikel Taberna, Daniel Irazoki, Xabier Silbeira eta Beñardo Goietzek idatziak. Orain arte argitaratutako doinuek desberdina baina beti bezala berezia.

### Kultur agenda

Urriaren 9an, larunbatarekin, Bortziritako Euskaltegiak antolatuta, kantaldia izanen da. Mixel Etxekopare telonero izanta, Ohienart eta Josetxo Goia-Arabe aditzeko aukera izanen ditugu kultur etxean 22:00etan. Datorren ortziralan aldiz, urriaren 15ean, Deabru Ixila antzezlan eskainiko du Tokia Xiberoako Antzerki Taldeak 21:00etan toki berean. Oin Arin Lazkaoko dantza taldea ere kultur etxera etorriko da urriaren 23an Gure Txokoa Dantza Taldeak antolatuta. Eta ezin aipatu gabe utzi urriaren 24ean aginen den Lurraren Eguna.

**ANSONEA** jatetxea

Eguneroko menua eta karta  
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Forren Plaza 1 • T: 948 631155 • BERA

**SAROB**  
okindegia

**SANDERS** Pentsuak

Ertegarra 41, Tinoa: 948 630 899 • BERA

© 948 631462  
Aizate 1 • BERA

**XIRRI**



LESAKA

# Podologo zerbitzua eskaintzen du San Fermin elkarteak hilabetero

012 telefono zerbitzua martxan jarriko du abudo Udalak

Aitor AROTZENA

San Fermin erretiratuak podologo zerbitzua eskaintzen hasi da hilabetero. Zehazki, hilabeteko lehen astearte goizean etortzen dira Irunitik zerbitzu hori eskaintzera elkartearen egoitzan. Irailan hamabi lagunek erabili zuten zerbitzua eta urriaren 5ean hogeitau lagunek. Aitzinetik ordua eskatu behar dela ohartarazi dute elkartetik, Carmelo Etxarte presidentek aipatu digunez, «*podologoak Irunitik etortzen baldin badira ere, San Fermin elkarteak berak erosi ditu zerbitzu hori emateko behar diren tresnak. Lehengo milioi erdi pezeta gastatu dugu horretan*». Dena den, zerbitzua ez zaio jubilatuei bakarrik eskaintzen, edozein joaten ahal baita. Hori bai, jubilatuek 7 euro ordaindu behar dituzten bitartean, jubilatuek ez direnek 10 euro ordaindu beharko dute.

Bertze aldetik, irailean Errioxa eta Hondarribiara egindako bidalekin akautu dute uda parteko ateraldi denboraldia San Ferminen. Orain, urriaren 24an egiten den Elkartearen



ARGAZKIA: JOSUA OLASABAI

## Kultur Astea arrakastatsua

Kultur Astearen barrenean hainbat ekitaldi izan dira aurten ere: antzerkia, Lesakako pasadizoel jarritako bertso berriak, solasaldiak, kantu afaria... Haurrek ere izan dute bere tarteak, kulturaldi hau hasteko argazkian ageri den tailerra izan baitzuten frontoian. Kulki taldearen eskutik haurrentzako jolasak ere izan zituzten ikastolako pistan.

Eguna prestatzen ari dira, baina egitarauaren berri zehatza hurrengo alean eskainiko dugu.

## 012 telefono zerbitzua

Udala 012 telefono zerbitzua lehenbailehen martxan jartzeko asmoa du. Telefono zenbaki honetan, Herriko Etxearen lotutako tramitazio guztiak egiteko modua

izanen da: igerilekuko bonoak, musika eskolako matrikulazioak... Laura lantzi zinegotziak adierazi digunez, «*herriarek Udalarekin duten harremana erregaioa izatea da helburu nagusia, edozein deialdi, bilera edo gisako informazioa telefono honetan emanen baitute*». Telefono orokor batera deituzerakoan hurbiltasuna

galduko ote den galdetzerakoan zera dio lantziak: «*Herriko Etxea beti hor izanen da hurbiltasuna nahi duenarentzat. Beran urte terdi daramate zerbitzu honen eta hagitik kontent daude. Udal langileentzat lasaitasun handia da eta herritarrentzat erraztasuna*». Zerbitzuaren berri emateko kanpaina egiten da.

FLASH

## Batzokiko VIII. paleta-goma txapelketa

Batzoki elkarteak zortzigarren urtez antolatutako duen paleta goma txapelketa izen emateko aukera izanen da urri osoan, 948 627 522 edo 686 759 341 telefonoez deituz (Laura). Txapelketa azaroaren 6an abiatuko da eta bi maila izanen ditu. Lehenengo maila Diario Vasco Saria izanen da eta bigarren mailak Rural Kutxa Saria izena hartuko du. Bosna bikoteko lau talde sortuko dira eta talde bakoitzean ligakka jokatu da. Talde bakoitzeko lehenengo bi bikoteek Diario Vasco Saria jokatu dute eta hirugarrenak eta laugarrenak Rural Kutxa Saria. Partiduak larunbatero arratsaldean eta igandero goizean udal pilotalekuan jokatu dira. Txapelketa honetatik ateratako bikote batak, Susperregi eta Zapirainek, San Fermin Txikito txapelketaren finala jokatu zuten urriaren 1ean.

## Erdiko Errotako kanala

Erdiko Errotako kanala berritzeko lanak kontratatatu ditu Udalak, prozedura negoziatuaren bitartez. Hasierako aurrekontua 32.929,25 eurokoa da, zergak barne. Interesatutako enpresek urriaren 20ko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte beraien eskaintzak. udal bulegoetan.

**ANA**  
jauridenda  
Bilma 41-948 637518-LESAKA

**XATURETKEA**  
ZUZUKA  
JATETKEA  
Tfnoa: 948637027 LESAKA

**IRU BIDE**  
INFORMATIKA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESAKA

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESAKA  
IMANOL TELLETXEKA ZUZAYA  
Gasola etxera eramaten dugu  
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)



## ETXALAR

# Zine emanaldia, kantu-afaria, hitzaldiak eta antzerkia ikusgai aurtengo Kultur Egunetan

Hurrengo igandean, urriak 17, ospatuko da aurtengo Usategietako Igandea

Joseba eta Nerea

Euskara batzordeak Kultur egunak antolatu ditu bertze urte batez eta horren barrenean hainbat ekitaldi izanen dira datozen egunetan. Lehenengoa haurrei zuzendurikoa izanen da. Urriaren 15ean zine emanaldia izanen da ikusgai 17:00etatik aitzinera. Horrela, nahi duten guziek "Kiriku eta Sorginak" pelikula ikusteko aukera izanen dute Kultur Etxean. Hurrengo ekitaldia urriaren 22an izanen da 19:30etan Kultur Etxean eta Erlantz Urtasun historialaria etorriko da «1000 urteko nafarrak» izenburua duen hitzaldia ematera. Urriaren 23an, larunbata, Lesakako Mairu Antzerki Talerrak Gaizka Sarasolak prestaturiko "Erregea, soldadoa eta bufoia" antzezlan eskainiko du Kultur Etxean 20:00etan. Urriaren 29an bi ekitaldi prestatu dituzte, batetik Asisko Urmeneta etorriko da



ARTZABOIA

### Gazte afaria 2004

Azken urteotan ohitura bihurtu den bezala herriko gazteek Usategietako Igandea bezperarako afaria antolatu dute. Hala ere aurten arratsaldetik giroa berotzeko triki-poteoa izanen da herriko ostatuetan 19:30etatik aitzinera. Afaria berriz 21:30etan izanen da Herriko Ostatuan. Gogoan izan bertara joan nahi dutenek txartelak eskuragai izanen dituztela Elutsan eta Herriko 20 euroren truke.

gazte hizkerari buruzko hitzaldia ematera eta bertetik Kantu Afaria izanen dugu. Afarira joateko txartelak herriko ostatuetan edo Euskara batzordeko edozein kiderengana joz eskura daitezke.

### Usategietako Igandea

Hurrengo igandea, urriak 17, egun handia izanen da Etxalarren, Usategietako Igandea eginen baita. Jende aunitz mugituko da larmendiko gainean. Bes-

ta goiz-goizetik hasiko da. Mendian buelta bat eman, usazaleen lana ikusi eta Albata Kultur elkarteak prestaturiko taloak probatzeko aukera izanen dute Usategietara hurbiltzen direnek. Arratsaldean

besta giroa herrira jautsiko da. Aurten Jalisko Bandek alaituko ditu plaza bazterrak 18:00etatik 22:00etara. Frontoian ostatua paratuko da herriko dantzarien alde dirua biltzeko. 20:00etan urteroko zozketa eginen da.

### Bisitak Usategietan

Joan den urtean bezalaxe, aurten ere bisita gidatuak antolatu ditu Mariskiñeneko Bordako Laura Elizagoienek Usategietan. Denboraldia uso sasoiaren bera izanen da, urriaren 1etik azaroaren 20ra, eta bisitak 8:00etatik 14:00ak arte eginen ditu. Erran digunez gogo eta ilusio haundiarekin hasiko du bigarren urte hau eta joan den urteko arrakasta ikusita aurten ere jende multzo handia ibiliko dela pentsatzen du. Berrikuntza bezala, aurten taldeen tzako ekintza bereziak antolatu dituela, batez ere haurrentzako.

**HERRIKO**  
OSTATE JATEKOA

ARIZKUNGA, 10 • 48121 (L) •  
Tfno: 945 70 30

**TRUKULA**  
Ioredenda

Albatur, 30-K  
• 627542  
LESAKA

- bibokeriak
- opartak
- enmerkaziak

**LEGARRA**  
BERRIKUNTZA

OPOSIZIOAK PRESTATZEKO  
LIBURUAK EKARTZEN  
DITUGU, EUSKARAZ ETA  
GAZTELERAZ

*Egunero irekia*

Tfnua./Fnoa: 945 63 70 30 • Albatur, 9 •

LESAKA



## IGANTZI



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Artzai zakur lehiaketa, bandera dantza, betizuetako lehiakideak eta apar besta, bestetako lau irudi.

## Eguraldia lagun, ongi joan dira aurtengo bestak

Egunez anitzez gehiago ibili da jendea gauzez baino

### Oskar TXOPERENA

Hainbertze irudiren artean zaila da bestak irudikatzen ahal dituzten argazkiak aukeratzea. Ezinezkoa da bertalde bestetako ekitaldi guztien banan-banakokontaketa egitea. Azken bi urteetako Artzai zakur Lehiaketaren irabazleak Pello Pagari-zabal artzai eta Argi bere zakurra ageri da lanean lehenbizikoan. Jende aunitz hurbildu zen aurten Meakaundi-ko zelaira hogeita bosgarren urtea betetzen zuen artzai zakur lehiaketa ikustera.

Bigarrenean Roberto Txoperena San Migel eguneko meza ondotik bandera berriekin egindako agurrean ikusten ahal da.

Hirugarrena betizue-

tan ikuskizun eta lehiaketa ederra prestatu zuen gazte taldeari aterakoa da.

Eta azkenekoan apar bestan dabilzan haurrak ikusten ahal dira.

### Mediku aldaketa

Azken alean medikuaren aldaketaren kon-

tua aipatu genuen. As-te pare batez lehen Igantzin izandutako Begoña Martínez egonen zela ere erran genuen. Bada, oraingoan bere lan-tegi berrira behin beti-koz joan denez, orri honetatik herritar guziak agurtzea eskatu digu. Zortea izan dezala berak ere lantegi berrian,



**ERREKALDE**

OSTATUA

PLATE

KONKINATIAK

PATXOAK

BOKATIAK

Tel: 948 630 735 - 407 406 781

**Lanchas**

PARKETAK - TARIMAK  
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
ESTALDURA OROKORRAK

Bera - Tfn: 948 630 735 - 407 406 781

Zure inguruak hain gutxiak inoiz  
kontatu, zurea, amama, kaka... (eta  
arazo-egutetz gertu nahiz bestak, zeta)  
Gu zurea eta gurea paratzen  
Tartea eta Polifenol konbatako tratamendua

**BERA**  
DESINFECCIONES

948630155  
BERA

**KOXKILA  
OSTATUA**

Berritu mui Koxkila!  
Astero opari ederrekin

**BERA**  
DESINFECCIONES

948630155  
BERA

Zarandía, 4 - LESAKA



## ARANTZA

# Herriko pilotari gazteak irailtik txapelketetan jokatzeko ari dira

Luis Mari Retegi pilotako irakaslearekin asteazkeneko entrenamenduak egiten dituzte

**Nerea ALTZURI**

Joan da iraila ere eta aitzineko kronika idazterakoan pilota eskolak ere ikasturtea abiatu zuela aurreratu genuen. Ez dira orainxe hasi gainera: zaletasunak zintzo eta indartsu dirau, eta urtez urte, etorkizuneko pilotari izan litezkeenak kantxetan maiz ikusten ditugu.

Herriko frontoiko entrenamenduak eta txapelketa herrietarako ibilerak, joan den iraila hasieratik abiatu dituzte. Hogeitabortz gazte pilotan trebatzen ari dira. Batzuk hasi berriak dira eta bertze batzuek, urte gehiago edo guttiago, eskuak pilotara ohituak dituzte. Ortziraletan, larunbatetan eta igandetan partiduak jokatzeko ari dira eta asteazken arratsaldetan, bortzetatik zortzirak bitartean, Luis Mari Retegi igantziarra irakasle dutela, entseguak edo entrenamenduak egiten dituzte. Taldeka banatuz, txandaka saioak egi-



Beñat Mitxelena eta Joseba Pikabeak Irungo Kurpil txapelketa irabazi zuten ekaina bukaeran, San Martzial jai inguruan. Udaran ere txapelketetan ibili dira eta orain ere hala darraite.

ten dituzte. Burlata, Gartzaron, Larraun, Urrotz, Doneztebe, Amezketan, Egia eta Añorga herrietako txapelketak edo partiden lekuak dituzte pilotariak. Ttikietatik hasita, zaharragoetarako taldeak eta pilotariak zeintzu diren kontatuko

dugu: Haur Ttikietan, (hauek ez dira txapelketetan hasiak), Santxo Aguaito, Mikel Oteiza eta Xabier eta Andoni anaiak; Alebinetan, Markel Jorajuria, Ibai Etxeberria eta Jon Mazizior; infantiletan, Unai Iparragirre, Jon Jorajuria,

Ander Almandoz eta Julen Oteiza; Kadeteetan, Jon Alzuri, Julen Oskoz, Andoni Mitxelena, Iosu Larretxea, Alberto Fagoaga, Imanol Mitxelena eta Joseba Madariaga; Jubeniletan, Beñat Mitxelena eta Eneko Ordoki; eta

haundien taldean, Joseba Pikabea, Xabi Larretxea, Dani Iparragirre, Jabierto Iparragirre eta Agustin Goñi. Pilotari hauek denak, Ekaitzaren izenean kanporaketako partiduetan ari dira. Saiatuko gara, partidak eta emaitzak aldira, ahal dugun heinean aitaitxo honetan eskeintzen.

### Ikastaroak kolokan

Eskulan ikastaldiari buruz solasteko, aste honetan biltzekoak ziren eta ale hau idazten ari garenean, informazio hori ematerik ez dugu izan. Hurrengo kronikan eskulan ikastaroa izanen den edo ez aditzera ematen dizuegu. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak eskulan ikasturterako dirulaguntzarik ez du onartu. Bien bitartean, aurten gimnasia eta aerobik ikastaroak ez dira izanen, eskolako gimnasia konponketa lanak egin behar direlako.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**  
 • Astelehenerik ostiratera, 9:00etatik 15:00etara  
 • Asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara  
 Non: MALDAERREKA S.L. Bidea 71 • Tfnoa: 948 63 70 50  
 email: artekari.com

**BURLATA:**  
 ARTEKARI S.L. Tfnoa: 948 133338 Faxa: 948 133713  
 Non: La Villa kampa, 4-bidea • 31800 BURLATA  
 info@artekari.com

- Lortze Autonomak
- Nekazaritza eta merkatu-erakundeak
- Komunikazio eta Seguritate Sektorea
- Lan-kontratuaren ingurukoak
- Enpresa berriaren abianerako sortza
- Diru-erakundearen abianerako
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Enpresa abianerako
- Elkarrekin eta jabetza ereduak
- Bideragarritasun planak eta sumakortasun

## JOSE I. GONZALEZ ENGUITA

PINTURA LANAK OROKORREAN

666 235 466  
948 630 683

Bidasoa 49 - 1.ezk  
31780 BERA

© 948631076 • BERA

## GOYA

arropak • mailndireak  
Mantak • nordikoak  
toallak • kortinak  
Alfonbrak

Aitzate, 5 • t: 948330083 BERA



## SUNBILLA



ARGAZKIAK: EDOINE ETA ANARA

Bazkideek Ulibeltzak elkartearen galako jantzia paratu zuten. Garai bateko baserriko lanak egin ziren herri kirol saio berezian.

# Ulibeltzak elkarteko bazkideek egoitzaren hogeita bosgarren urteurrena ospatu zuten

Berrehun lagun baino gehiago bildu ziren bazkarian

## ttipi-ttapa

Irailaren 18an egun haundia ospatu zuen Ulibeltzak elkarteak. Izan ere elkarteak Leku-Eder karrikan duen egoitzak 25 urte bete dituela eta, hainbat ekitaldi prestatu zituzten egun osorako. Goizean hildako bazkideen oroimenez meza laburra egin zen eta ordubete beranduago dantza saioa eskaini zuten Baztango dantzariak. Jen-de aunitz bildu zen ikus-

tera eta eguzkiak gogor jotzen bazuen ere, gustura segitu zutek herritarrek baztandarren dantza ikuskizuna.

## GARAI BATEKO BASERRIKO LANAK HERRI KIROL SAIOAN

Dantzariak saioa akautu bezain abudo, herri kirolek hartu zuten tokia. Denbora batean baserrietan egiten zituzten lanak gogoratuz, proba konbinatu berezia egin zuten herriko bi

gazte koadrilek. Hasteko, bi arto erreldo hesiarekin xehetu zuten. Gero, ur garraio ibili ziren, eskuetan bi poza-lekin eta buru gainean bertze bat eramanez. Belar-zama garraio ere aritu ziren. Artoa bildu, zuritu eta irauzi ere egin zuten. Gero egur egitea egin zen garai batean bezala. Lehenik enborra bota eta egurrezko astoaren gainean moztu zuten. Bertze bi lagun arpanan aritu ziren

eta trontza horiek lau puxkatan pikatu ondotik, pilatu egin zituzten. Egur pilaren gainean, «Ulibeltzak elkarteak 25 urte, zorionak» zioen kartela jarri zuten bi taldeek lana akitutakoan.

Herri kirol saioaren ondotik Ulibeltzak elkarteko bazkideei origarri bana eman zitzaizen. Ondoko herri bazkarian 200 lagun baino gehiago bildu zen Leku-Eder karrikan egin zen herri bazkarian.

Bazkalondoan Oskar Estangak eta Jalone Olazabalek kantaldia eskaini zuten. Bildu zirenen artean Fiteroko bainuetxe batean bi lagunentzako aste bukaera bat zozketatu zen eta Juan Pedro Bertiz izan zen irabazlea.

Eguraldi ederrarekin, giro ederrean joan zen arratsalde osoa. Agerralde musikariarekin dantzaldia izan zen eta berandura arte luzatu zen besta.

**TOLDOAK** SALMENTA-KONPONKETA-ALOKARUA-ERROTULAZIOA  
**MOSKITERAK, PERTSIANAK** MOTORIZATIAK,  
 VENECIANAK... PVCzko **LEIHO ETA ITXITURAK**

## PIKABEA

pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoiz 8 • t. 948 630240 - 948 631495 • BERA



## ITUREN

# Joaldunen Eguna burutu zen irailaren 18an

Hamasei joaldun ibili ziren auzoz auzo

ttipi-ttapa

Eguraldi ederra lagun, hamasei joaldun bildu ziren irailaren 18an Iturenen ospatu zen Joaldunen Egunean. Goizeko 7:30etan gelditu ziren denak joareak paratu eta janzteko. Ondotik, 10ak aldera baserriz baserriko ibilaldia hasi zuten. Herriko trikitilariak lagunduta Amezitia auzoan barna ibili ziren. Bereaien ibilbidean hainbat geldialdi egin zituzten joaldunek. Joxe Mari Ariztegi joaldunak TTPI-TTAPARI jakinarazi zionez, «duela 20-21 urte hasi ginen joaldunen eguna ospatzen. Hasieran berriari berean egiten genuen, baina duela hamaka bat urte baserrietara joatea erabaki genuen. Inauterietan ez gara ailegatzeko eta horrelako egun batean, presarik gabe joaten ahal zara. Nik usate baserriak ere eskertzen dutela». Iritzi horretakoa da Zubilene-kobordako Manuel Bazterrika. Bere ustez,

«gauza ederra da joaldunen eguna. Hasieran zortzi joaldun bertzerik ez ziren ateratzen, baina gero eta gehiago dira».

Poliki-poliki aitzinera egin zuten baserrietako ibilbidearekin eta eguerdi aldera Ameztiatik herrira jaitsi ziren joaldun eta musikariak. Eguerdian aizkora apostua jokatu zuten Luis Mari Bellarra doneztebarrak eta Beintza-Labaiengo Xabier Mindegiak. Ondotik, Jexux Mari Irazu eta

Igor Elortza bertsolariak aritu ziren eta bazkaria izan zen Herriko Etxeko Ganbaran. Bazkailondoan dantzarako grina erakutsi zuten iturendarrek, ganbaran bertan lehenik eta herriko plazan gero. Aitziber Mindegia, Ibintza kultur taldeko kidea gustora ageri zen egunak emandakoarekin. «Eguraldi ederra izan dugu eta bazkaltzen 138 lagun bildu gara, bertsolari eta musikariek batera».



ARGAZKIA: ANAIA MINDEGIA  
Joaldunek bereaien ibilbidea osatu zuten baserriz baserri.



616 513 497  
**Pititi**  
ESKABAZIOAK  
C/Asentia,  
10PM DONOSTIEN PLAZA/BAIOA

**ZALDUBI**  
Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Polikoroa • 948 580 552 (BURTA)

**PAGOLA**  
TXISTORRAREN  
IZENA  
948 630 054  
Altzateko Plaza, 2  
BERA



## DONEZTEBE

# Erreka elkarteak desagertzeko arriskuan dagoela ohartarazi dute arduradunek

Udal kirol instalazioak erabiltzeagatik ordainduz gero ez omen dira kontuak kitatuko

## ttipi-ttapa

Erreka kirol elkarteak desagertzeko bidean egon daitekeela ohartarazi dute zuzendaritza batzordeko arduradunek. Herriko Etxeak, kiroldegia eta pilotalekua erabiltzeagatik elkarteari kobratzeko intentzioa du, «*orain arte kontrol handirik ez baita izan*». Udalak elkarteko kideei jakinarazi zienez, kirol instalazioen mantenimendua garestia da eta erabiltzaileek nahitaez ordaindu beharra daukate. Erreka elkarteak orain arte ez zuen deus ordaintzen instalazio horiek erabiltzeagatik, parte-hartzaileei zerbait kobratzen zitzaizen ekitaldietan izan ezik.

Bakar-bakarrik eskubaloian kanbxaratuko dituen lau taldeen eta pilota taldearen entrenamendu eta konpetizioak kontuan hartuz, hori dirutza izugarria izanen litzateke Erreka elkartearentzat. Udalak 6.000 euro inguruko dirulaguntza ematen dio urtero Errekari, baina kasik diru guziaz udal instalazioak ordaintzen joanen litzatekeela jakinarazi dute elkartetik. Irailaren 28an elkarte-ko arduradunak soluzio baten bila bildu ziren, baina ez zuten irtenbide garbirik topatu. Honela, berriaz ere Udalarerekin biltzeko asmoa dute, Herriko Etxeak iritziz aldatuko duelakoan.



ARGAZIA: TTP-TTAPA TB

Elkarteak desagertzeko arriskuan baldin badago ere, hainbat ekitaldi antolatzen segitzen du Errekak. Irailaren 25ean Errekak antolatutako Kuadrilen arteko futbito txapelketa eta nesken binakako frontenis txapelketaren finalak jokatu ziren. Futbiton Karmelitas S.L. taldeak 8-7 irabazi zion Duff taldeari. Finala hagitz polita izan zen, emozio handikoa. Frontenisean Maider eta Pilartxo izan ziren txapeldu-nak Leire eta Naiarari 30-15 irabazi ondoren. Jende aunitz hurbildu zen kiroldegira eta frontoira giro ederrean joan ziren bi final hauek ikustera.


## «Kontu txikiak» ikastaroa Donezteben

Malerrekako Zerbitzuak eta Guraso Elkarteak antolatuta «Kontu txikiak» izeneko ikastaroen da Donezteben urriaren 19an (ortuaren 21ean (ortuaren 26an (asteartean 28an (ortuzeguraren 17:00etatik 19:00etara. Ikastaroa Doneztebe-ko eskolako psikomotrizitate gelan emango da eta urtebete eta hiru urte tarteko umeen rasoendako izango da. Ikastaro honetan bi urteko umeak soili banatutako eta liburuaren kantuak landuko dira. Izena emateko Malerrekako Eus-

kara Zerbitzura deitu behar da, 948 451746 telefonora edo mezua igor-

rreka@animsa.es helbide elektronikora eta 6 euro ordaindu. Klaseek bitartean

hautzaindegi zerbitzua eskainiko dela ere jakinarazi dute antolatzaileek.



**PERTSONAIA**  
Julen SAN MIGUEL

## Julen San Miguel munduan sartu berriro zortzigarren nontelaria

Irailaren 4an jokatu zuten buruz buru-erremonte txapelketaren finala Koro Ezkurak eta Iñaki Lizasok. Egun hartatik lehenago, abuztuaren 29an irabazten zuten debuta erremonte profesionalen Julen San Miguel, 17 urteko txelari azkarrak. Ezkurra, Lizaso, Iñaki Lizaso, Olazar, Uterga, Erkizia eta Iñaki Lizasoekin batera, beraz, zortzi dira profesionalen ari diren erreklari doneztebarrak. Iñaki Lizasok herriko pilota eskolatik aterria da eta rutia saldistarra ere, beraz, Doneztebenaren hiriburua dela erran dezakegu.

Hurrengo alean, Julen San Migelekin izandako elkarriketa argitaratuko dugu.



## ZUBIETA



ANTONIO

Urteak daramazkite Zubietan Euskararen Eguna antolatzen. Argazkian, 1994ko herri bazkariaren bazkalondoa ageri da. Orduan bezalaxe, aurren ere bertsolariak izanen dira giroa jartzen.



# Euskararen Eguna ospatuko da urriaren 9an

Iñaki Murua eta Beñat Lizaso bertsolariak eta Gorka akordeolaria izanen dira herri bazkarian

### Leire ORTUOSTE

Larunbat honetan, urriaren 9an, egingen da Zubietako Euskararen Eguna. Goiz osoan herriko eskulangileen erakusketa izanen da plazan. Eguraldiak laguntzen ez badu, estalpean egingen da ekitaldi hau. Herriko joaldun tli-

kiek herrian barna itzulia egingen dute goizean, trikitilariak herria girotuko duten bitartean. 14:30etan herri bazkaria izanen da estalpean, Iñaki Murua eta Beñat Lizaso bertsolariak eta Gorka akordeolariarekin. 18:30etan herri poteoa izanen da eta

20:00etatik 21:30etara dantzaldia Trikidantz taldearekin. Dantzatu ondoren, berriz ere mahaiaren bueltan bilduko dira zubietarrak, herri afaria izanen baita estalpean. Gauerditik goizaldeko 4:00etara dantzaldia izanen da Trikidantz taldearekin.



UZTANIO ARGAZKIAN

Maidor Leizeaga ageri da argazkietan, Errekaldean bildutako tomateekin. Goitian 1,450 kiloko tomatearekin ageri da eta beheetik argazkiko tomate guztiak kilotik goitikoak dira. Txelo Unsain bere amak aipatu digunez, geroztik kilo terdiko tomatea ere bildu dute baratzean. Ez hori bakarrik, joan den urtean 2,250 kiloko tomatea bildu zuten eta guzira 250 kilo eman zuten iaz bere 50 tomate landareek. Leku ona izateaz gain, «asko mimitzen» dituela aipatu digu Txelo Unsainek bere sekretuaz galdetzerakoan.



Tel.: 948 456 080  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## APARAN, S. A.

### BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



## GOIZUETA

## 1a 50 Hektarea aldatuko ditu Udalak hurrengo neguan

Insignis pinurik ez da ondo bat ere landatuko

Esteban AROTZENA

Azkeneko mende erdian gure mendietako errege den insignis pinua Goizuetako paisaiatik desagertu egingen da seguru aski urte gutxiren barruan. Hurrengo neguan ia 50 Hektarea, 48,28 zehatzago esanda, aldatzeko plangintza egin du Udalak. Zortzi mota ezberdineko milaka landare sartuko dira ondoren aipatuko ditugun parajetan, baina insignisen ondo bat bakarrik

ere ez. Lotez-lote aipatuz esan, Urribabalgo 11,23 Hektareen heren batean larizio pinua landatuko dela; beste heren batean sekuaia, eta bestean lizarra, gereziondoa eta astigarra. Okilegikomakoan, berriaz, 6 Hektarea aldatuko dira, erdia sekuaia eta beste erdia lizarra, gereziondoa eta astigarra.

Altzate-Maldamalkor izeneko loteko 22,28 Hektareatik 9,5ean larizioa sartuko da; 4an



ARRASOKA

Ondorengo urteetan ere honelako irudiak ikustekotan aurretik lan egin beharra dago.

douglasizeia; beste 4an sekuaia, eta gelditzen diren 4 Hektareatan bestetan bezala, lizarra, gereziondoa eta astigarra. Bi lote hauek aldatzeko lanak Zumaldikarreta enpresari eman dizkio Udalak. Zumarrenean 8,77 Hektarea landatu-

ko dira guztira eta hemen ere larizioa izanen da nagusi, pinu mota hau sartuko baita 5,5 Hektareatan. Gereziondoek, astigarrek, Virginiako tuliperoek eta urkiek osatuko dute herriak bere mutilekin egingen duen landaketa hau.

Baso-lan hauen 123.710 euroko aurrekontua Udala eta Nafarroako Gobernuaren artean estaliko dute.

## ARESO

## 37.000 euro baino gehiago jaso dira uso postuen enkantean

Urteagako postu batengatik 4.231 euro ordaindu dira

Juana Mari SAIZAR

Ehiza postuak aurtengoan aspaldidanik ikusi den diru kopuru handiena egin dute, 37 mila eurotik gora, alajainena!. Esan behar da kanpoko jendea dela gehiengoa eta subastatzen diren postuak 27 hain zuzen. Aurtengoan Urteagako postu batengatik 4.231 euroak

ordaindu dira. Eta bertan birgarroak ehizatzen dira. Kontuak horrela, iaiz baino 7500 euro gehiago sartuko ditu udalak bere kontuetan.

### 17 ikasle hasi dira eskolan

Ikasturte berriari eman zitzaion hasiera, 17 ikasle eta hiru irakasle, denak berriak eta



ARRASOKA

Joan den urtean katekesian aritu ziren neska-mutikoak beraien irakasleekin.

zuzendaria Mikel Ilarregi izanien da.

### Katekesia

Ikasturtearekin batera parrokiak bere katekesia martxan jarri du. Aurten lehen jaunartze-ko haurrak berriak izando dira eta beste 3 taldeak jarraituko dute, ka-

tekista eta apaizarekin.

### Festa batzordea

Festa batzordeak bilera egin zuen urriaren 1ean kontuak egiteko eta baita ere balantza-txoa, lehenengo urtea baita udalak emandako diru kopuruarekin festak egin direla.

## ARANO

## Urkamendi eta Txingurriketa landatzera

Kontxi KLABER

Badira egun batzuk mendiak garbitu eta ibiturak egiten hasi zirela bigarren landaketa faseari ekiteko. Nafarroako gobernua %100 subentzionatuta Urkamendi eta Txingurriketa artean ia 20 hektarea landatuko dira bertako zuhaitzekin, 16.017 hektariz, 8.008 urki, 100 gerez, 100 lizar eta 7.775 pago sartuko dira.

### Aerobica

Udarako oporraldia eta gero, joan zen 15ean hasi zituzten ginnasiako klaseak, aurreko kurtsoan bezala astean bitan elkartu dira herriko etxeko ganbaran.



# moda

Udazken-Neguko joerak  
2004

# m

gehi-garria



**Ibarrola**  
Haurrendako arropa  
0-14 urte  
Parrokia 6 • DONEZTEBE • Tel: 948 450 463

**ARRIET** 0-4 urte  
Parrokia 6 • DONEZTEBE • Tel: 948 450 463

Negu honetan  
zatoz  
Ostizera

Bariatzailoa:  
**CASA OSTIZ** **BUPE**  
Parrokia, 17 • DONEZTEBE  
948 450 289




# SORGIN-XULO

39tik 70 taia bitarte  
jantzeko arropak  
edo informalak, bitriak...  
Neska, mutil, emakume  
eta haurrenentzat.



Plaza Zaharra 4 • LESAKA • Tel. 948 638032



**MERCHE**  
MODA HOMBRE

Sorapio Mujika, 11 • 20302 IRUN • Tel. 943 612 626



**CAPELETTI**  
AVANCE  
Centro Comercial Mendivil  
20302 IRUN • Tel. 943 624 672



**HONORIO  
TABERNA**

Gizaseme  
eta  
Emakumeendako  
Boutique

Tfnos: 948 450 109  
Merkatarien karrika 29  
DONEZTERE



**Martzutzak**

Estegora 12 • DERA

Tfnos: 948 631 425

## Datozen

# joe -

Adituek diotenez, txapelak eta sepiak eta marroi koloreak nagusituko dira denboraldi berri honetan.

Boltsoek, txapelek, eskularruek eta bufandek gizon eta emakumeen irudiari "fashion ikutua" emanen diote. Osagarriak modan egonen dira eta kolore nagusia, betiko txuri eta beltzaz gain, sepiak kolorearen gama guztian oinarrituko da, eta kolore hau batez ere, txokolate marroiarekin nahasiko da.

Sepia kolorea zahar itxurako arrosa bariazioetaraino doa, lur-kolorea eta marfilarekin nahasiz.

Linea eratsu eta funtzionaleko boltsoak eramanen dira. Nylonezko boltsoak edo naparekin nahasten direnak nagusituko dira, baina baita antezko aplikazioak ere.

Boltsoak orokorrean apaindurarik gabeak izanen dira edo erdian hebillak ikusgarriekin. Hala ere, erosotasuna izanen da boltso guztietan ezaugarri nagusia.

Neurri guztietakoak aurkituko ditugu aurreko urtean baino ttikiagoak eta barnetik hagitz ongi egonen dira, konpartimendu desberdinekin gauzak ongi sailkatuta gorde eta erraxago aurkitzeko.

Txanoak aurtengo sorpresa izanen dira, emakumeari glamour ikutua emateko indarrarekin iritsi dira. Hamarkada batzuren ondotik, modak txapela berreskuratu du egunerokotasunean zeukan erabilera be-



## «Ez da estilo berririk estiloa eta gu

rreskuratzeko. Angora, artilea edo feltrozko ehunarekin eginak, gizonetzkoen linea segitzeko petrala edo solapa izanen dute, bestela, bertsiotxo informalekoan iritsiko dira, "Borsalino" motakoak. Txanoak eta txapelak benetan modan jantzi nahi dutenentzako osagarri gogokoak izanen dira.

Denboraldi berri honetako arropen grisak konpentsatzeko, txapelen koloreak bortitzak eta argitsuak izanen dira: pistatxo, horixka eta fukusia koloreek negu giroari kolore zertzelada emanen diote.

Bufandak neguko hotzaz babesteko oinarritzko elementua izaten segituko du. Aurten flekorik gabeak edo behintzat fleko motzagoekin iritsiko zaikigu, artilearekin eginak eta elkarrekin ongi uztartzen diren kolorekin: arrosa, pistatxo, horixka, sepiak edo "tipula" deitzen duten marroi errea antzekoa.



## Bisuteria

Bisuteriak baino, bitxiak definituko dute hobe aurtengo joera: zilarra, zilar horia, amatista, obsidiana, topazioa...

Bitxigintzan estilo eta diseinu aukera handia dago. Diseinu klasiko-enetatik, etniko eta abangoardistenera arte, metala, larrua edo ehunarekin konbinatuz. Fantasiako bisuteriaren ezaugarriak nabarmenena, aldiz, perlaren itzulera izan da.

## Xehetasunak

Ehun naturalak berriz itzuliko dira: larru mimetikoa, larru birziklatua, larru begetala, loreak, marrak, bordatu folklorikoak, etnikoak: bigarren aldiz tintatuak, zaharkitu itxurakoak eta hautsezatuak. Eskuz egindako akaberak, begirada



akarra jarraitzen, norbere  
tua mantentzen duten joerak

etnikoak, eta basati eta arriskatuaren itxura ematen duten materiale naturalak. Neo-birziklatu estiloa izanen litzateke eta bi oinarrizko ideia ditu: norbere sustraiak aurkitzea eta planetari aukera bat ematea. Olerkia, irudimena eta ametsak natura, artea eta folkloreakin nahasten dira. Zure armairuaz jabetuko den fantasiako mundu bat. Urtaro honetan kolore bizi eta dinamikoaren erreibindikazioa aurkezten digute diseinatzaileek, nahiz eta aldi berean beltzaren erabilera indarrean egon. Beraz, kontrasteak nagusitzen dira. Enkaje eta transparentziak emakumearen jantzien sedukzioa lortzen da. Arropen aitzineko aldean makro-irudiak ikusiko dira, gehienetan kolore biziekin eta estilo hau gazteen jantzetan asko nabaritutako da. Oraindik listadoak aunitz ikusiko dira, for-



ma oso desberdinekin. Eta azkenik, berokiak, pasarelatan gutti ikusi arren, eguneratuak datoz, linea berriekin eta klasizismotik ihes egingez.

ALBERTO  
CLASSIC & SPORTWEAR  
1983



CARAMELO	ARMANI JEANS
GENFINS	CALVIN KLEIN
DOCKERS	REPLAY
ZONE	DIESEL
BELSTAFF	LIBERTO
BARBOUR	SCOTCH & SODA
TIMBERLAND	REDSKINS

EZKONGAIEN eta  
GONBIDATUEN JANTZIAK

MUGANera ELKARTUAK  
Hondarribia k., 6 - Tel-Fax: 943 615815  
IRUN

txinelka

ZAPATADENDA

Arretxea 20, behea • LESAKA • 948 637 594

Larunbat arratsaldetan irekia



Konponketak  
Osagarriak



Bisuteria  
Arropa  
Opariak

KAPRITXO

948 510994  
LEITZA



FANTXIKE

Mertzeria - Opariak - Lantzeria  
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA

Jaime Urrutia, 15 Elizondo Tfnoa: 948 580 312





# udazken neguko jõe -

## Oinetakoak

Emakumearentzako botak eta botinak, bere bertsio guztietan, berriz ere puri-purian izanen dira, nahiz eta punta karratuko zapatak eta aurreko urtean baino kirol oinetako ausartagoak ere iritsiko diren. Gizonarentzat, oinetako klasikoa mantenduko da, baina forman, berrikuntza ttiki batzuekin (punta pixkat goiti duten orkoi altuak). Kirol oinetakoak ere ausartak izanen dira gizonentzat. Kolore belusatuak –berenjena arrosa, karmesia, urrea edo okrea– morea, urdina, berdea edo beltza bezalako metalizatu hotzekin batera datoz. Hiritar estiloa dutenentzat, marroia, berdea, beltza (zahar itxurako urre kolorearekin batera), kobrea eta berun koloreak nagusituko dira. Kaleak berriz ere bota eta txorkatilerainoko botinez beteko dira denboraldi honetan. Xehetasun, apaingarri eta atzera-puntadek oinetakoen linea estilizatuak nabarmenduko dituzte. Bota altu eta botinen takoi altu arrigarriez gain, forma borobildu eta irrentsuagoak indarrarekin etorriko dira, baina ez bakarrik botetan, bertze oinetako klasetan ere. Hiritar edo urbanitentzat, bota eta botin bajuak iritsiko dira, ante zimurrarekin eginak, betiko takoiaren ordezkariarekin, kolore biziko txarolezko zapatak, eta malla, biniloa, belkroa eta kremailera bezalako detaile futuristekin.

Zapata klasiko eta dotoreak materiale fin eta larru metalizatuarekin iritsi dira. Kolekzio gehienetan antea nagusitzen da, kolore bakarrean, metal zertzeladekin, eta Gales Printzea, lore eta aingeru estanpatuarekin. Larrua, zikindua edo pikorrekin izanen dute eta akabatuak tintaroiarekin, satinatua edo nakaratua.




## Osagarriak

Boltsoak, oinetakoak bezala, elementu praktikoak izanen dira. Emakumeek, kamaleoiak bezala, sasoiko koloreen eta festa osagarrien barrokismo tipikoaren alde eginen dute. Gerrikoek emakumezko eta gizonentzako garrantzi handia hartuko dute.

1901ea



Jaime Urrutia, 44 ELIZONDO Tfnoa: 948 580 056

MODA PREMAMA  
  
 Serapio Mujika, 14  
 © 943 615886  
 20302 IRUN



HAURDUN ZAUDE?

*Zatoz!*

*eder jartzeko behar dugun guztia daukaqu*

IPINGI

Puntoan aukera zabala

Osagarriak

Bitxiak

Santiago 88  
 31700 Elizondo  
 948 580 939

tenporadako arropetan aukera zabala

etiketatutako arropa berria





**LEITZA**

## Berrogeita zortzi umek eman dute izena haurtzaindegian

Saharako haurrekin izandako esperientziaren berri Maria Dolores Sagastibeltza eta Migel Otxotorenarekin

Mikel ILLARREGI

Aurreko aleetan institutoan eta eskolan matrikulatu diren berri ematen genuen. Oraingo honetan laburrean bada ere haurtzaindegiko matrikulazio kopurua aipatu dugu. Beste batean honen berri zehatzago emanen dugu, adin desberdineko tal-

detan. 48 haur matrikulatu direla aipatu beharra da.

**Badoa**

Agian batzuek ez duzue ezagutuko, beste askok bai, baina esan beharra dago azkenean sei hilabete hauetan herriko liburategian izan eta lanean aritu dela.

Udalak kontratatu zuen Xabier Abarzuza iruindarra, Jose Luis Huartek liburuen katalogatze lana egiten zuen bitartean, berak ohiko lanak aurrera eramanez ahalizateko. Gustura doa hemendik, gainera poza eman dio "euskaraz lan egin ahal izateak". Sekulan liburategira hur-



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

**Liburuzaina izan den Xabier Abarzuza.**

bildu ez denari edota libururik irakurri edota oso gubxitan irakurri duenarentzat "gustatzen zaion libururik ez duela orain-

dik aurkitu eta liburategian denetarik aurkitzeko aukera dagoela" esanen lioke. Tori! Ea nork ukatzen duen hori?



**PERTSONAIK** M<sup>re</sup> Dolores SAGASTIBELTZA-Migel OTXOTORENA

### «Saharako haurrak ekartzea polita da, baina aldi berean gogorra ere bai»

Saharatik etortzeko umeak etxean izandako guraso batzuen testigantza azaltzeko Maria Dolores Sagastibeltza eta Migel Otxotorenaren kasua dugu aipagai. Berauen etxean sartu gara eta duela hamabost bat egun beraiekin egondako Salec aitzaki hartuta galdera sorta luzatu diegu.

**Noiztik hartzen dituzue gazte hauek etxean?**

Hau laugarren urtea da. Lehenbizikoa bi izan genituen, 17 eta 11 urtekoak. Ondoren Salec eta bera izan da hiru urteotan.

**Eta zergatik?**

Urte hura gaiztoa izan zen, semea galdu genuen, eta sahararak ekartzeko bilereetan parte hartu genuen. Hasieran ez genekien

oso ongi zertan sartzen ginen baina hori izan zen hasiera.

**Zer moduz joan da?**

Ongi, oso ongi. Baina askotan egon gara mediku zaintzapean. Salec-ekin aurtan libratu gara baina aurreko bi urtetan medikutan ibili gara.

**Osasun zentrotan zer moduzko tratua izan dute?**

Oso ongi. Medikuek ongi hartu dute. Aseguru-etxearekin izandako gora-beherak aipatu behariko genituzke. Hauek beste era bateko tratua eman digute eta ez zaigu balere gustatu.

**Hau nork antolatzen du?**

Herrian bi lagun dira ardura gehien hartzen dutenak: Lurdes eta Junkal. Antolaketa orokorra Nafarro-

ako "Sahararen aldeko Lagunak" (ANAS) taldeak eramaten du eta oso kexu gara. Beraiekin izan dugun tratua eskasa baino, kaskarra izan dela aipatu behar da. Sahararren eta gurekiko tratua penagarria izan da. Nire ustez, hori guztia aldatu behar litzateke.

**Hona etortzen direnean zein da zuen ardura?**

Hona etortzen direnean, osasun eta elikadura gabeziak betetzen saiatzen gara. Eta denbora aurrera doan heinean egoera normaltzen doa eta eguneroko bizitza egiten saiatzen gara. Aurtan izaban eta Orion izan gara egunak pasatzen eta espezial egon gara guztiok. Hala ere, egun batzuk pasa ondoren herrira itzuli nahi izaten dute, hemen baitaude beraiekin etortitakoak.

**Eta joaten direnean zer sentitzen duzue? Nola doaz beraiek?**

Joaten direnean tristura handia jasotzen da, bi hilabete ondoren badoaz eta. Haiek gustura doaz, familia ikusi nahi dute.

**Faltan izaten al dituzte etxeak?**

Aurtan hasieran, lehenbiziko egunean, negarrez aurkitu nuen gauean, ea zer gertatzen zitzaien galdetuta, arrea Donostian zegoela erantzun zidan. Ene ustez, halako bidaia egin ondoren nekeak jota zegoela. Gero normal.

**Euskaraz hitz egin edo ikasi al du zerbait?**

Urtebik urtera gehiago. Hasieran zerbait ulertzen zuen, baina gero hitz egin ere, hitz egiten zuen.

Aurtan mediku euskalduna egokitu zen eta erdi brometan berak "zer moduz?" galdegin zion eta Salec-ek "oso ongi" erantzun zion. Medikua hamitunik, euskaraz jarraitu zion elkarrizketari eta besteak ederki erantzun eta jarraitu zion. Ikaragarria izan zen.

**Urte guzti hauetako anekdota bereziren bat izanen duzue?**

Pila bat. Hala ere bada bat sekulan ahaztuko ez zaidana. Lehenbiziko urtea zen, eta iloba baten ezkontza zen larunbat horietako batean. Gure 17 urteko gaztea garbia zen eta dutxatzea gustukoa zuen, baina gorputza gehiegi busti gabe. Ezkontza eguna iritsi zen eta egun hartan bestetan baino gehixeago garbitu behar zuela adierazi nion. Dubxan sartu zen eta denbora pila bat igaro zuen bertan. Hor noizbait atera zen eta erdi negarrez, gorputzean odol arrasto pila bat. Ikaratuta zergertatu zitzaion galdetu nion. Ez zekiela esan zidan erdi negarrez. Komunera sarrarazi ninduen eta eskutan "piedra pomez" delakoa erakutsi zidan, gorputza horrekin garbitu zuela esanez. Ez nekien par edo negar egin. Ikusi beharra zen nola zegoen bere gorputza. Ondoren, nolabait moldatu behar eta gorputza tiritetz josi genion eta horrela festara.

**Datorren urtean berriro hartuko duzue baten bat?**

Bera bada bai, bestela pentsatuko dugu. Politza da baina gogorra ere bai.



BAZTAN

# Gartzaingo Pilarika bestak urriaren 9tik 12ra

Gartzain eta CAR Belateren arteko herri kirol desafio ikaragarria izanen da larunbat arratsaldean

### Launbete 9 Bespere Egune

12:00etan txupinazoa eta besten hasiera. Ondotik herriari itzulie txistulariek alaituta.

17:00etan herri kirolak. Desafio ikaragarria: Gartzain Vs Car Belate.

21:00etan Frantsenen baztan zopak.

24:00etatik aintzineria dantzaldia MIKEL SALABERRIekin.

4:00etan txalaparta partia aparta.

7:00etan zinger jatea eta argi ezkiek etxera erretiretzeko (edo ez).

### Igandia 10 Haurren Egune

10:00etan diana txistulariekin.

12:00etan Meza Nagusia.

17:00etan mus partidak, Marzel Magoa (Honesto Lopez iturgintzak babesturik), merenge eta brokolatada denendako.

20:00etan dantzaldia MIKEL SALABERRIekin. Ondotik Mutildantzak eta Baztango gaitariak.



AVAZOIA. JON ELIZETIK OTZA  
Asteleheneko Herritarren Egunean izanen da zikiro jatea. Aitzinetik, ezkondu eta ezkongabeen arteko herri kirol desafioa jokatu da.

tariak.

24:00etatik aintzineria dantzaldia MIKEL SALABERRIren eskutik.

### Astlehena 11 Herritarren Egune

10:00etan herri kirolak, ezkonduak ezkongabeen kontra.

14:00etan zikiro jatea.

Arratsaldean eta gauze dantzaldia MIKEL SALABERRIren eskutik.

24:00etan Baztango gaitariak eta pintxoak dantzan jarraitzeko.

### Asteartea 12 Pilarika Egune

10:00etan diana txistularien eskutik.

12:00etan Meza Nagusia Ariztegiko ermitan. Ondotik jameketakoa.

17:00etan Gorriti eta bere animaliak.

20:00etan dantzaldia MIKEL SALABERRIekin.

4:00etan Gaixoa Ni eta besten azken hatsa.

FLASH

### Arkeologia prospekzioak Artesia

Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo Departamentuak Artesianga inguruan arkeologia prospekzioak egitea onartu du, Camino Paredes Giraldo Kultur Ondarearen zuzendari nagusiak sinatutako ebazpen bitartez. Prospekzioa Gabinete Trama enpresak egiten ditu, Magnesitas de Navararren esplotazioak hartuko lituzkeen lur eremuetan. Gurutze Meakako harrespil multzoa mugatu eta babestu nahi da ekimen honekin.

### Hitzarmena

Baztango Udalak hitzarmena sinatu du Caja Navarra Fundazioarekin urriaren 5ean, kultur ekitaldiak diruz laguntzeko. Balleko Etxean egindako ekitaldian, Virginia Aleman Baztango alkatea eta Jesus Agorreta Fundazioaren gerentea izan ziren.

### Emakumearen egoera

Emakumearen egoerari buruzko diagnostikoa egiten ari da Udala, etorkizunean berdintasun plana gauzatzeko asmoarekin. Egitasmo hau iaz onartutako Plan Estrategikoaren barnean sartua dago.

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostaturia  
Hotela - Trinketea

**Menu Beruziak**

Braulio Iriarte  
ELIZONDO

☎ 948 581807 • 948 581853

Okindegia Jatetxea

# Uxoa

OKINDEGIAN  
- Ogi artizanoa, egunekoak eta txapete

JATETXEAN  
- Menua eta karta (jasteburuak)  
- Espezialitate partien erretaka jokietan

Okidegiaren  
edukiak egunero  
Ogi-egunero

Ordoki Industrialean - Tfnoa: 948 45 34 03 - 31113 ARIZKUN



**BAZTAN**

## Ornozko San Martin ikastetxean 48 etxebizitza egingen dira

Baztango Udalak eskolaren behin behineko birkalifikazioa egin du

**ttipi-ttapa**

Ornozko San Martin ikastetxean 48 etxebizitza egiteko lehen pausua eman du Balleko Udalak. Hori egin ahal izateko lehenik ikastetxea birkalifikatu egin behar da eta horixe onartu du Baztango Udalak azkeneko batzarrean, Eusko Alkartasunaren aldeko zazpi botuekin eta UPNren kontrako bortzekin. UPNren ustez hasierako proiektua aunitz aldatu da eta horregatik eman du kontrako boza. Akordio horren arabera, ikastetxearen eraikina dotazionala izatek erresidentziala izatera pasatuko da, etxebizitzak egiteko aukera emanez. Honela, Hizea 2002 promotorak egindako plangintzaren arabera, tasazio libreko 48 etxebizitza egingen dira. Ikastetxearen ondoko bi lur eremu ere eraikigarri izanen dira eta bertze 48 etxebizitza egingen dira bertan, erdiak babes ofizialeko-



ARGAZKIA: OROZKO

Herritarren ustez Baztango hirigintza planak ekarriko lukeen Oronoz-Mugairiko neurri gabeko hazkundearen kontra manifestazioa egin zen irailaren 12an. Gerotik ez dira geldirik egon herritarrak eta egindako inkestaren arabera, gehien-gehienak plan horren kontra daude.

ak. Baztango Udalak behin behinekoz onartu ondotik, orain Nafarroako Gobernuak Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamenduak eman beharko dio behin betiko onespena.

Bertze aldetik, Baztango Udalak onartutako Planaren kontra Oronoz-Mugairin egindako mobilizazioen berri eman genuen aitzineko alean. Horien artean, familia guzietan inkesta banatu zen eta honen

emaitza garbia da. Ez da herritarrik agertu plan honen alde eta zazpik ez dute iritzi garbirik. Planaren kontra 129 herritar agertu dira eta horietatik 127k bere izenabizenekin sinatu dute kontrako jarrera hori.



**PERTSONAIA**

Mila ERAUNZETAMURGIL

**1,800 eta 1,700 kiloko patatak Elizondoko Antzanbordan**

Uda honetako uzta oparoa izan dela nabarmen gelditu da ttipi-ttaparen azken aleetan. Etxalarren, Senperen, Gozuetan, Zubietan eta bertze zenbait herritan atera dituzten tomateak agertu dira orriotan. Oraingoan, Elizondoko Milagros Eraunzetamurgilek Antzanborda baseri ondoan erabiltzen duen baratzetik atera dituen 1,800 eta 1,700 kiloko patatak ageri dira. Milagrosek ez daki eguraldia edo lur ona ote den patata haundi hauek ateratzearen arrazoia, baina duela borts bat urte «patata luze-luzeak» atera zirela gogoratzen du.

**MENDI OSTATUA**

Santiago 25 - t: 948 580313  
**ELIZONDO**

**MENDIALDE Jatetxea**



AMAIUR - t: 948453060



**asnap.me**  
asesoria sanitaria de la propiedad y servicios empresas

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
- Nominak eta Aseguru Sozialak
- Garraiak
- Kontabilitateak
- Elektrizitatea
- IVA eta IRPF
- Eraikuntza
- Garraioa aserazamendua
- Igeltseroak...
- Diru-laguntza erberdinak
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- Sozialaketen inposituak
- ENPRESA GUZIAK
- Errenta aitortpenak

**DONOSTIA**  
Ezate Sarmiento, 4 bilaka  
Tele: 948 431922 Tele/Fax: 948 431433  
asnap@asnapyme.com

**ELIZONDO**  
Santiago, 51 bilaka  
Tele: 948 580 306  
elizondo@asnapyme.com

**BERGIA**  
Sarmiento, 3 bilaka  
Tele: 948 263208 Tele/Fax: 948 263499  
bergia@asnapyme.com

**Carlos Garaikoetxea Etxenike**

**abokatua Aseguru orokorrak**

t: 948581468 • 948580433  
Frantziarako etorb. 12 •  
Arretxalde 3B • ELBETE



**BAZTAN**

# Material birziklatuz haurrendako plastika ikastaroa antolatu da

Erabiliko den material guztiak guk sortutako zaborretatik aukeratuak izanen dira

**ttipi-ttapa**

Material birziklatuz eginen den haurrendako plastika ikastaroa antolatu du Balleko Udako Kultura Zerbitzuak. Ikastaroa urriaren 26an hasiko da otsailaren 22a bitarte, lau hilabetez asteartero ordu terdiz bilduko dira Arizkunenea Kultur Etxeko bigarren solairuan. Amaia Zinkunegi Arte Ederretan lizentziatua eta Ines Gereka Biologian lizentziatua izanen dira irakasleak, berriaz, bi multzotan banatuko dira: 5, 6, 7 eta 8

urtekoak 5:15etatik 6:45etara arituko dira eta 9, 10, 11 eta 12 urtekoak 6:45etatik 8:15etara. Izen ematea Baztango Kultur Etxean eginen da 30 euro ordainduz. Lekuak mugatuak direnez, lehenbailehen izen ematea komeni da. Ikastarora joateko aitzurrak eta arropa zaharra edo mandala bertzerik ez dira behar. Plastika eta ingurumena uztartzearen zergatia galdetzerakoan hainbat arazoi ematen dituzte irakasleek: «Alde batetik plastikak



ARGAZIA: FOTO MENA

**Urrezko Ezteiak Elizondon**

Irailaren 9an berrogeita hamar urte esposaturik, Urrezko Ezteiak, bete zituzten Imanol Gaztelumendik eta Mari Bikondoak. Urteurrena ospatzeko, irailaren 19an bazkaltzera elkartu ziren Eskisaroi jatetxean beraien semearekin eta bi alabekin eta hauek eman dizkieten lau bilobekin. Imanol Oreretan eta Mari Donostian sortutakoak baldin badira ere, ezkondurik dituzten urte gehienak Elizondon bizirik izan dira.

materialera hurbiltzen gaituelako botatako gauzen balioaz ohartaraziz; bertzetik diseinu berriak lantzeak sormena areagotzen digulako eta azkenik, birziklatzeak inguruneaz gehiago arduratzen laguntzen digulako». Alde horretatik, erabiliko den material guztia guk

sortutako zaborretatik aukeraturikoa izanen da; papera, kartoia, txapak, plastikoak, latak, arropa zaharrak... Material hori erabiliz papera eginen dute, papera eta kartoiekin liburuxkak, kuadroak, karpetak, txotxongiloak, maskarak, buruhandiak, mozorroak, jostailuak, ipui-

nak, jokoak, musika tresnak, eskulturak eta bertze hainbat gauza egiten dituzte.

**Erakusketa**

Urriaren 1tik 24ra Espartzaren margo erakusketa izanen da Arizkunenean. Astelehentik larunbatera 18:30etatik 20:30etara.

**BEINTZAKO GSTATUA**  
R. 948 50 011  
BEINTZALABAN

**HERRIKO ETXEN GEDRTEGIA**  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
MAIXAN ETA VÉRONIQUE  
SARA • TEL. 0559542519

**ttipi ttapa**  
☎ (0033) 948635458

**Landibar** ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUEBIN  
300 m<sup>2</sup> parfums markarik ezagunenekin  
Usain onak, kosmetikoak...  
Etsikal Herriko preziorik hoberenak  
☎ (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

**Mari Cruz**  
LENCERIA  
Parrokia 11,  
DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 45 01 12  
**ELIZONDON**  
Jaime Urrutia 43an  
urrian irekiko dugu



## AZKAIN

# Plazan Ostatuko pala txapelketak irailaren 17 eta 18an bururatu dira

Ondarearen Egunak aitzinako Azkainen berri eman zuen

Angela eta Xamo

Plazan ostatuko pala txapelketa irailaren 17 eta 18ko asteburuan bururatu da. Ostiralean, nesken eta 2.B-ren finalak izan dira:

Pauline Arrubarrena eta Maider Etcheverryk irabazi dute Ainara Aguerre eta Iraia Arinen kontra 35-7.

Arnaud Sallaberry eta Christophe Heuty-k irabazi dute Francois Pouillet eta Mathieu Albistur-en kontra 40/38.

Larunbat goizean 2.A eta 1.B-ren finalak izan dira:

Walter Barrantegui eta Stephane Peltier-ek irabazi dute Jerome Lafitte eta Claire Urdampilleta-ren kontra 40-29.

Daguerre anaiek irabazi dute Jean Pierre Iribarren eta Laurent Mihuraren kontra 40-15.

Bigarren partean 1.A eta Beterano-en finalak izan dira:

Gillou Salha eta Guillaume Sallaberry-k irabazi dute Pantxo Laduche eta Ramuntxo Irazoqui 40-32.

Jean Louis Aspirot eta Xavier Vignot-ek irabazi dute Jeannot Vicenty eta J.M. Rivera 40-30.

Hiru hilabete horietan, txapelketa horrek arrakasta handia izan du, 74 bikote bilduz.

### Ondarearen egunak

Irailaren 18 eta 19ko asteburuan, Herriko Etxeak, Turismo Bulegoa eta Euskal Kultur Erakundea-ren laguntzarekin Ondarearen egunak antolatu ditu. Larunbat gauean, herriko pilota plazan, "Azkaine denboran barna" diaporama hedapena izan da. Igandean, 50 bat pertsonak Tranbiaren burdinbidea segitu dute. Ibilaldi denboran tranbiaren historia jakin ahal izan da. "Trein urdina" deiturikoak 13 urtez (1924-1937) Sarako baserriak Ziburuko portuari lotu ditu. Azkainek, bere geltokia portuan zuen. Bi pausa baziren baita ere, bat Dorrea auzoan eta bertzea harrobietan. Erabiltzaileen beharpena eta autobusen kalitateak (prezio eta irabazi denborak), tranbien desagerpena ekarri zuen 1937ko urtean.

### Kornelio

Herriko musika eskolak bere ateak ideki ditu gan den hilabetean. Aurten ere soinu desberdinak proposatuak dira ikasi nahi duteneri: akordeioa, kitarra, txistua, trikitibxa, panderoa. Oroitzen gira duela hamahiru urte, eskola sortzen zelarrik,



Ondarearen egunak herrian historian zehar eraikitako hargintzak ospatzen ditu: hemen Larrungo arditegi bat.



Kornelio eskolako musikariek herriko kultur manifestaldiak alaitzen dituz-

akordeia bakarrik ikasten ahal zela. Orain, 60 haur eta 20 heldu gutti gora behera kurtxoak hartzen dituzte Jauregiko elkartearen etxean. Batzuek, herriko manifestaldiak alaitzen dituzte herriko txarranga juntatuz, ihauteriak, herriko bestak, etabar. Musikaren besta egunean, kontzertu bat antolatzen dute herriko plazan. Eskolako musikari guziek parte hartu behar dute, hasi-berriek baita ere konfirmatuek.

Xehetasun guziak atxematen ahal dira Herriko Etxean edo deitu zenbaki huntara: Baguet jauna 0559544380.



## Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IPURITA • T. 948 580 645



SEMPERE

# Paxkal Ezkurra nagusi Gantxikin Kubako Agusti Waltaryren aintzinean

Pilotazale ainitzek ezin izan zuten pilotalekurat sartu

Franck DOLOSOR

Errugbizaleen ondok pilotazaleek ere ikusgarri ederra ukan zuten buruilan. Baionako Aviron Bayonnais ekipa -Bixente Fagoaga senpertarraren taldea- Miarritzeko BOri nagusitu zitzaion Agileran, bere etxean buruilaren 18an eta biharamunean bertze ezustekoa gertatu zen Gantxikin herriko pilotalekuan. Urruñako Ezkurra bigarrenak Kubako Agusti Waltary garaitu zuen 40-35. Ezkurrak balentria haundia egin zuen egun hortan lehen aldia baitzen Kubako pilotariak gaitzen zuela buruz-buruka 2002an Iruñan munduko txapelduna izenda-

tua izan zenetik.

5 punduko diferentziak untsa erakusten du partida zaila jokatu zela Gantxikin. Markagailuak 10-5, 12-12 berdinketa, 18-13, 28-28, eta 35-35 erakutsi zuen. Hortik goiti, urruñarra nagusitu zen kubarrak ez baitu halako jokoen usairik. Partida bururatzean Waltaryk alde egin zuen baina azkenean Ezkurraren ondoan agertu zen sari bana-ketan parte hartzeko. Egun xoragarria izan zen pilotazaleentzat.

### Hizkuntza ikastaroak

Urte guziz bezala elkartu gehienek lana hasten du berriz buruilean.



Ezkurra eta Waltaryren arteko partidak ehunka pilotazale bildu zituen buruilaren 19an.



Zirikolatzen euskal dantza taldeak ikastaroak hasten ditu interesatuak diren guzientzat. Xehetasunak: 05.59.54.50.13. Zirikolatzen besta urriaren 31an ospatuko da.

Hizkuntzak ikasi nahi dituenak hauta haundia izanen du aurrean. El-

kartetxean espafiola ikas dilaite urtero bezala. Let's get together

taldeak aldiz inglesa erakasten du. Xehetasunak 05 59 44 96 22.

**ZOANSA**

SEAT AUDI VW SALMENTA

MARKA GUZIEK KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarita, 2 • Alkaioga ind. • 31789 LESAKA (Sarrera Beratik)

**BAZTAN**

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA



## BORTZIRIAK

# Euskara Mankomunitateak elkarlan hitzarmena sinatu du Kontseiluarekin

Lau mila euroko ekarpena egin zaio erakunde horri



ttipl-ttapa

Irailaren 29an sinatu zuen Bortzirietako Euskara Mankomunitateak elkarlan hitzarmena Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekin. Ekitaldia Berako udaletxeko batzar aretoan egin zen eta bertan Bizente Arotzena mankomunitateko lehendakaria, Menbu Peña eskualdeko euskalgintzaren ordezkaria eta Xabier Mendiguren Kontseiluko Idazkari Nagusia izan ziren, Bortzirietako euskalgintzako bertze zenbait ordezkariarekin batera.

Ekainaren 21ean onartu zen Bortzirietako Euskara Mankomunitatean Kontseiluarekin hitzarmena sinatzea eta erabaki horren ondorioz 4.000 euroko ekarpena egin zaio Kontseiluari. Elkarlanerako hitzarmen horren bidez Bai Euskarari Akordioa garatuko da eskualdean. Dinamika honen helburua da erakunde, enpresa eta elkarteetan eragitea beren hizkuntza normalizazioa lortzeko. Azken urteetan eskualdeko euskararen mankomunitateak egin dituen hainbat lan lido indartzera dator Bai Euskarari Akordia.


Prozesu hau eskualdeko euskalgintzaren elkarlanean abiatu da. Xabier Mendiguren Kontseiluko Idazkari Nagusiak bere esker ona adierazi die hauek guzietan eta Kontseiluaren berri ere eman du hitz labur batzuetan.

## RURAL KUTXAKO INBERTSIO FONDOAK

# 1

## INBERTSIO FONDOEN KUDEATZAILE HOBERENENTZAKO SARIA

### RURAL KUTXAKO FONDOEK BADUTE SARIA



**Lipper Saria - Cinco Días:**  
Gescooperativo, 2003ko Fondo Misto en Espainiako Kudeatzaile Hoberena

Zatoz Nafarroako Rural Kutxara.  
Gure Inbertsio Fondoek badute saria.

[www.ruralvia.com](http://www.ruralvia.com)

Egunero hobekiago egitearen erronka



**NAFARROAKO  
RURAL KUTXA**



## URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

# Zazpi haur berrik hasi dute aurtengo ikasturtea bi herrietako eskoletan

Kixka antzerki taldearen eskutik antzerki tailerra egingen da

## Margari eta Koro

Zazpi haur berri hasi zaizkigu aurten eskolan, eta haurren kopuru aldetik pozteko berriak baldin badiera ere, kurtso hasiera franko traketza izan dela aipatu behar da. Alde batek hiru urtetakoak aste bat berandu hasi behar izan dira, ikasgelan udan egin beharrak ziren lanak kurtso hasita oraindik finitu gabe zirelako. Bertze aldetik, bortzgarren mailakoak ere aste bat egon dira irakasle baten faltan, beren maistra-tutorea ez zutelako igortzen. Hondarrean Bilbotik iratxe etorri zen. Merito ederra du neska honek, beraz, ongi etorria.

## Erakusketa

Oraindik ikusi gabe dau-



Zugarramurdi eta Urdazubiko haurrak, Zugarramurdiko eskolan. Aurten hasiak diren hiru urtetako zazpi haurrak falta dira.

ketenek, jakin dezatela Barranbeko-bordako Mikel D'Albretrek Urdazubiko klaustrotan jarria daukan erakusketa urriaren 10ean ibiko dela. Erakusketa hau

abuztutik hunat dago irekita eta jendearen araberan ikusgarria omen da.

## Antzerki tailerra

Ez du iduri aurten ikas-

taro aunitzik antolatuko diren gure bi herri haue-  
tan. Momentuan mar-  
txan jarri nahi dena An-  
tzerki Tailer bat da. Tai-  
ler hau adin guztietara-  
ko irekita dago eta Sen-

pereko "Kixka antzerki taldeak" emanen du Senpereko Elkartebe-  
an. Izena emateko te-  
lefono hauek deitu  
behar da: 0559545397  
edo 0682448392.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrek S.L.  
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA



## EZKONTZAK

Oscar Sanz de Acedo Pollan eta Maria de Oskia Redin Martinez, Iruñekoak Elizondokoa, abuztuaren 14an.

Eneko Noain Sanz eta Maider Burlada Soule, Barañaingoak Arizkuneko abuztuaren 14an.

Jesus Gonzalez Yusta eta Maria Gil Jaurena, Madril eta Elizondokoa, abuztuaren 8an.

Gabriel Maria Cazenave Zarandona eta Maria Dolores Cerdá Rico, Valentziakoak, Lekarozen, irailaren 11n.

Iñigo Aitzugarai Pierola eta Estibaliz Aranbillet Garcia, Almandoz eta Lesakakoa, abuztuaren 29an.

Diego San Julian Garcia eta Margarita Penelope Leuza Labiano, Iruñekoak Beran, irailaren 3an.

Francisco Ariztia Irigoien eta Silvia Beatriz Arbanesi, Bera eta Buenos Aireskoa (Argentina), irailaren 11n.

Joseba Lekuona Iriarte eta Itxaso Uitz Pradanos, Lesaka eta Berakoa, irailaren 11n.

Luis Miguel Garcia Fernandez eta Estibalez Lopez Calles, Madril eta Irungoa, Beran, irailaren 17an.

Javie Lasarte Goia eta Josune Pereira Latasa, Berakoa, irailaren 18an.

Javier Alvarez Prieto eta Goizane Alvarez Irijoa, Irun eta Donostiakoa, Beran, irailaren 25ean.

Francisco Javier Erbiti Zabaleta eta Adela Ruiz Sanchez, Leitzakoak, irailaren 4an.

Jose Antonio Urrutia Juanikotena eta Irene Opoka Ugalde, Amiaur eta Elizondokoa, irailaren 12an.

